

1. ERANSKINA

ELKARRIZKETEN KODEA ETA GIDOIA

ELKARRIZKETA ERDI EGITURATUAK	IRAKASLEAK
Elkarrizketa erdi-egituratua 1	5 urteko ikasgelako tutorea
Elkarrizketa erdi-egituratua 2	5 urteko ikasgelako ingeleseko irakaslea
Elkarrizketa erdi-egituratua 3	Beste eskola publiko bateko Haur Hezkuntzako (5 urteko) irakaslea

ELKARRIZKETA EZ FORMALAK	IRAKASLEAK
Elkarrizketa ez formala 1	Haur Hezkuntzako irakasleak
Elkarrizketa ez formala 2	5 urteko ikasgelako tutorea
Elkarrizketa ez formala 3	5 urteko ikasgelako tutorea
Elkarrizketa ez formala 4	Astean behin 5 urteko ikasgelara sartzen den lehenengo mailako irakaslea

GIDOIA

- 1) Nola irakasten dituzu gelako arauak?
- 2) Nola bizitzen duzu arauak irakaste-ikaste prozesua?
- 3) Zailtasunik ba al duzu prozesu honetan? Izatekotan zeintzuk?

2. ERANSKINA

IRAKASLEAREN ETA IKASLEAREN ARTEKO ELKARREKINTZAREN AZTERKETA HAURREK ARAUAK BETETZEN EZ DITUZTENEAN: ELKARREN ARTEKO JOKABIDE PATROIAK

IKASLEAREN JOKABIDEAK	IRAKASLEAREN JOKABIDEAK
Araua apurtu	
	Haurra zigortu

1.taula. "Araua apurtu/ Haurra zigortu"

Jokabide honen barruan, zigor motaren arabera, ondoko hauek agertzen dira:

IKASLEAREN JOKABIDEAK	IRAKASLEAREN JOKABIDEAK
Araua apurtu	
	Haurra aldendu: <ul style="list-style-type: none"> - Ikasgelako txokoren batera - Pasillora - 3 urteko gelara
<ul style="list-style-type: none"> - Ikasgelako txokoren batera badoa: araua onartu - Pasillora edo 3 urteko gelara badoa: ezinegonagonean agertu (beldurra, negarra eta protesta-erresistentzia) 	
	<ul style="list-style-type: none"> -Haurra ikasgelako txokoren batera edo pasillora bidaltzen badu: eskolarekin lasai jarraitu -Araua betetzea zaila bihurtzen denean: estutu eta larritasuna agertu

2.taula. "Araua apurtu/ Haurra aldendu/ Araua onartu- Ezinegonagonean agertu/ Eskolarekin lasai jarraitu- Estutu eta larritasuna agertu"

Adibideak:

1.Egoera (2017-01-07)

IKASLEAK: araua apurtu du (txokoetan lanean aritu bitartean, haur bat oihukatzen ari da ikasgelan).

IRAKASLEA: “Baina baina bueno, zer dira oihu hauek? Gelan oihukatzen? Orain joan zaitez hara (atzamarrarekin gelako izkina bat seinalatu du) eta eseri” (tutoreak bertako izkina batera bidali du, haserre tonuarekin).

IKASLEA: txokora joan eta bertan geratu da lasai, gainerakoek egiten dutena begiratzen.

IRAKASLEA: “Altxatu eta joan zaitez jolastera baina oihukatu gabe”.

IKASLEA: irakasleak esandakoa bete du.

2.Egoera (2017-03-03)

IKASLEAK: ez du araua bete (txokoetan lanean daudela, ume bat materiala gaizki tratatzen ari da).

IRAKASLEA: “Joan zaitez kanpora”.

IKASLEA: serio jarri da eta beldurtuta pasillorantz abiatu da.

IRAKASLEA: “Zelako bakea!”.

3.Egoera: (2017-03-20)

IKASLEAK: araua apurtu du (aulkiarekin jolasean eta lurrera nahita botatzen dabil).

IRAKASLEA: “Ekarri hona aulkia, aulki gabe geratuko zara” (ingeleseko irakasleak, tonu normalean, arretea deitu dio).

IKASLEA: “Ah bale” (haurrak barrezka erantzun dio).

IRAKASLEA: “Joan zaitez 3 urteko gelara” (3 urteko ikasgelara bidali du tonu normalean).

IKASLEA: negarrez hasi eta halaxe joan da txikienen ikasgelara.

4.Egoera: (2017-01-08)

IKASLEAK: ez du araua errespetatu (irakasleak batzeko ordua dela iragarri du eta haurrak jolasten jarraitu du).

IRAKASLEA: “Jesarri zaitetz aulkian!” (irakasleak esertzeko agindu dio umeari, tonu altuan, haserre. Bitartean, irakasleak umeak jolasean zerabilen saskia bere lekura eraman du).

IKASLEAK: ez dio jaramonik egiten irakasleari.

IRAKASLEAK: hau ikusita, haurra indarrez jesarrarazten saiatu da.

IKASLEAK: erresistentzia egiten du momentu horretan, “¡No, no, no quiero!” oihukatu bitartean (“No, no, no” negarrez oihukatzen duen aldi berean, lurtean geratzeko indarra egiten ari da eta beso biek bere burua jotzen du, gogor).

IRAKASLEA: “Luego no me extraña que me vaya a casa a mil por hora, como para no” (tutorearengan larritasuna, antsietatea, tentsioa eta ezinegona nabari dira).

IKASLEAREN JOKABIDEAK	IRAKASLEAREN JOKABIDEAK
Araua apurtu	
	Harremana ukatu
Irakaslea bilatu	
	Harremana ukatu

3. taula. “Araua apurtu/ Harremana ukatu/ Irakaslea bilatu/ Harremana ukatu”

Adibideak: (2017-01-13)

IKASLEAK: araua apurtu du (begiak itxita eduki behar dituzten jarduera batean, haur bat begiak zabalduz ari da etengabe).

IRAKASLEA: “No quiero saber nada más de tí”, “A mí ni me mires eh. Estoy muy enfadada contigo”.

IKASLEA: “Parkatu andereño”. “¿Y ahora qué hago? ¿Me quito la chaqueta? Pero andereño, ¿Qué hago?” (erlaxazioko irakaslearen kontaktua eta arreta bilatu nahirik, umeak hau jarraitzen du gelako txoko guztietatik).

IRAKASLEAK: beste alde batera begiratzen du eta ez dio kasurik egiten.

IKASLEAK: helduaren aldetik ezer jasotzen ez duenez, urduritasuna eta antsietatea nabari dira haurrengan, larri dago (irakaslearen atzetik doanean, mugimendu eta keinu asko egiten ditu).

IRAKASLEA: “Esan dizut nahi duzuna egiteko!” (haserrea oihuz adierazten du. Baina oihuez gain, emozio hori keinuen bitartez ere azaleratzen du: besoak eta eskuak luzatu eta mugitzen ditu eta aurpegian haserrea erakusten du. Gorri-gorri jartzen da eta egiten dituen keinuak indar handiz egiten ditu).

IKASLEAREN JOKABIDEAK	IRAKASLEAREN JOKABIDEAK
Araua apurtu	
	Egindakoarekin zerikusia duen zigorra ezarri
Zigorra onartu	
	Eskola ematen lasai jarraitu

4.taula. “Araua apurtu/ Egindakoarekin zerikusia duen zigorra ezarri/ Zigorra onartu/ Eskola ematen lasai jarraitu”

Adibidea: (2017-02-17)

IKASLEAK: ez du araua bete (komunikatzen gelara korrika bueltatu da).

IRAKASLEA: “Nola etorri zara komunikatzen? Eta nola bueltatu behar gara? Orain joan zaitez komunera eta etorri zaitez behar den bezala” (tonu normalean komunikatzen behar bezala bueltatzeko agindu dio).

IKASLEA: “Komunikatzen astiro bueltatu behar gara, korrika egin gabe” (egindako galderari erantzun ondoren, komunera behar bezala joan da, gelara dagokion bezala bueltatzeko inolako arazorik gabe).

IRAKASLEA: “Oso ondo. Hurrengorako badakizu nola bueltatu behar zaren” (tonu baxuan eta lasaitasun osoz gogorarazten dio araua).

IKASLEAREN JOKABIDEAK	IRAKASLEAREN JOKABIDEAK
Araua apurtu	
	Haurra lagundu

5.taula. “Araua apurtu/ Haurra lagundu”

Jokabide honen barruan ondoko hauek agertzen dira, laguntza motaren arabera:

IKASLEAREN JOKABIDEAK	IRAKASLEAREN JOKABIDEAK
Araua apurtu	
	Azalpena eman
Azalpena entzun eta araua bete	
	Eskola ematen lasai jarraitu

6.taula. "Araua apurtu/ Azalpena eman/ Azalpena entzun eta araua bete/ Eskola ematen lasai jarraitu"

Adibidea: (2017-03-06)

IKASLEAK: araua apurtu du (korroan etengabe hitz egiten dago).

IRAKASLEA: "Isilduko zara mesedez?" (ingeleseko irakasleak, tonu baxuan, isiltzeko eskatu dio).

IKASLEAK: irakasleak esandakoa entzun arren, berdin jarraitu du.

IRAKASLEA: "No puedes tener siempre el protagonismo. Ya te he dejado hablar, ahora tienes que dejar hablar a los demás" (hezitzaileak haurrak azalpen baten beharra duela nabaritu du eta tonu normalean, lasaitasun osoz isilik zergatik egon behar duen ulertarazten saiatu da).

IKASLEA: "Vale teacher".

IKASLEAREN JOKABIDEAK	IRAKASLEAREN JOKABIDEAK
Araua apurtu	
	Alternatibak eman
Arauak bete, alternatibak hartu gabe	

	Eskola ematen lasai jarraitu
--	------------------------------

7.taula. “Araua apurtu/ Alternatibak eman/ Arauak bete, alternatibak hartu gabe/ Eskola ematen lasai jarraitu”

Adibidea: (2017-03-09)

IKASLEAK: haurretariko bik ez dute araua errespetatu (korroan daudela, etengabe ari dira elkarren artean hitz egiten).

IRAKASLEA: “Me estáis molestando. Si queréis hablar os vais a una mesa y habláis lo que tengáis que hablar pero aquí me estáis molestando” “Segundo aviso. Ya os he dicho antes que aquí en el corro me estáis molestando. Id a hablar y a contaros lo que tengáis que contar a la mesa y luego volvéis, pero aquí no me molestéis” (ingeleseko irakasleak txokoetara joateko alternatiba eman die, tonu normalean).

IKASLEEK: arreta handia jartzen diote irakasleak esandakoari eta momentuan isildu egin dira, emandako alternatibak hartu gabe.

IRAKASLEA: “¿Qué? ¿No vais a ir a la mesa a hablar?” (haurrei aukeratzeko alternatiba hori eman arren, umeak korroan geratzen direla ikusita, hezitzaileak haien asmoa zein zen jakin nahi du).

IKASLEAK: hauek buruarekin ezetz esan dute.

IRAKASLEA: “We are going to continue” (haurrei alternatiba eman ondoren, saioak aurrera jarraitzen du, ezer gertatu izan ez balitz bezala).

IKASLEAREN JOKABIDEAK	IRAKASLEAREN JOKABIDEAK
Araua apurtu	
	Errefortsu positiboa
Araua bete eta hurrek poztasuna agertu	
	Eskola ematen lasai jarraitu

8.taula. “Araua apurtu/ Errefortsu positiboa/ Araua bete eta hurrek poztasuna agertu/ Eskola ematen lasai jarraitu”

Adibidea: (2017-01-09)

IKASLEEK: normalean jantokira joateko tren egin behar dutenean, amantalak korrika jantzen dituzte eta aulkiak ez dituzte bere lekuan jartzen tren azkar egiteko. Gaur, berriz, ondo egin dute: korrika egin gabe, tren egin eta gauzak bere tokian utziz.

IRAKASLEA: “Ikusten duzue zein ondo? Zelako tren elegantea egin dugun? Ikusten duzuen bezala, lasai-lasai tren egiten badugu ere, jantokian lekua izango dugu, norberak bere lekua duelako. Horrela bai, horrela igartzen da 5 urteko umeak garena, Haur Hezkuntzako handienak eta ez 3-4 urteko umeak”.

IKASLEEI: aurpegian poztasuna nabaritzen zaie, irakasleak esandakoa entzunda, irribarre egiten baitute.

IKASLEAREN JOKABIDEAK	IRAKASLEAREN JOKABIDEAK
Araua apurtu	
	Umorea erabili
Araua bete	
	Eskola ematen lasai jarraitu

9.taula. “Araua apurtu/ Umorea erabili/ Araua bete/ Eskolak ematen lasai jarraitu”

Adibidea: (2017-01-03)

IKASLEAK: araua apurtu du (korroan daudela, gaizki eserita dago, etzanda)

IRAKASLEA: “Zer, Aitor, ondo ezta? Hondartzan zaude eguzkia hartzen ala?”.

IKASLEA: “Bai, hondartzan nago” (haurrek esandakoa txantxa balitz bezala hartzen dute eta barre egin ohi dute denek).

IKASLEAK: berehala betetzen du araua eta irakasleak esandakoa; hau da, jarraian esertzen da ondo.

IRAKASLEAK: eskola ematen lasai jarraitzen du.

IKASLEAREN JOKABIDEAK	IRAKASLEAREN JOKABIDEAK
Araua apurtu	
	Abisua eman
Beldurtu/ Kasurik egin ez	
	Haserretu/ Jolastu

10.taula. "Araua apurtu/ Abisua eman/ Beldurtu- Kasurik egin ez/ Haserretu- Jolastu"

Adibideak:

1.Egoera: (2017-01-06)

IKASLEAK: ez du araua bete (ingeles saioan, etengabe hitz egiten ari da, gainerakoak molestatzen).

IRAKASLEA: "Gaur astelehena da, egun iluna, euritsua, hotza egiten du, lo gaude..." (hezitzaileak momentuko egoeraren berri ematen dio, tonu lasaian).

IKASLEAK: berdin jarraitzen du, bere jarrera aldatu gabe.

IRAKASLEA: "Beraz, mesedez, ez hasi hain goizetik. Ah eta azken abisua. Hurrengoan badakizu nora joango zaren" (nahiz eta tonua altxatu gabe hitz egin, haserrea hitzen bidez adierazten du; hau da, mehatxuen bidez eta baita aurpegiko adierazpenaren bitartez ere).

IKASLEA: mutu geratu da, ezer esan gabe eta serio.

2.Egoera: (2017-03-16)

IRAKASLEA: "Begira, hemendik aurrera txartelak erabiliko ditugu, futboleant bezala. Arauren bat betetzen ez duzunean, txartel horia aterako dut. Bi txartel hori ateratzen dituzunean, zer gertatuko da? Futboleant zer gertatzen da jokalarit batek txartel hori bi dituzenean? Gorria ateratzen diote eta kanpora joan behar da ezta? Ba zuk ere berdin" (5 urteko ikasgelako tutoreak haur jakin batek arauak apurtzen dituzenean, "Txartelak" erabiltzen ditu abisuak emateko).

IKASLEAK: araua apurtu du (gelan zehar korrika ibili da).

IRAKASLEA: “Aitor, lehenengo txartel horia!”. “Bigarren txartel horia, hurrengoan badakizu, gorria eta kanpora!” (ikasleak arauak hausten dituen bakoitzean, hezitzaileak txartel horia ateratzen dio umeari).

IKASLEAK: badaki guztira txartel hori bi dituela eta hirugarrena gorria dela.

IRAKASLEA: “Aitor, zuk txartel hori bat duzu. Hurrengo txartela jasotzen baduzu, badakizu” (haurrak araua apurtzen duen bakoitzean, tutoreak bere egoeraren berri emateaz gain, hurrengo arau haustearen abisua ematen dio).

IKASLEARI: beldurra nabaritzen zaio aurpegian.

3. ERANSKINA

BAIMENAK

Haur Hezkuntzako Gradua
Gradu Amaierako Lana



Irakasle Agurgarri hori:

Esther Zarandona de Juan naiz, UPV/EHUko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Sailaren irakaslea eta Maialen Atxutegi Aurtentxeren Gradu Amaierako Lanaren tutorea. Ikasle honek Practicum-ean egiten ari den zenbait behaketa erabiltzeko baimena eskatzera natorkizu, aipatu lana egin ahal izateko, eta baita zuri elkarrizketa bat egiteko ere, beti ere zuen eskola ados egongo balitz. Helburu nagusia hau da: ikaslea hezkuntzari buruzko ikerketa kualitatiboaren prozesu batean murgiltzea, prozesu horren urrats guztiak ezagutzea eta ikerketa aurrera ematea. Haur Hezkuntzan mugak irakatsi eta ikasi prozesuaren gaineko ezagutzan sakontzea lortu nahi da, horixe baita hain zuzen Gradu Amaierako Lan honen aztergaia.

Elkarrizketaren gidoia alde aurretik ezagutuko duzu. Elkarrizketaren edukia eta hartuko diren beste datuak, ez dira beste ezertarako erabiliko, bakar bakarrik GrAL egiteko. Bestalde, partaide guztien identitatea -eskola, irakaslea eta ikasleak-, konfidentziala izango da eta zuk nahi izanez gero ikasleak saio bat prestatuko du lanaren emaitzen berri zuri emateko (edo eskolari nahi baduzue). Ados bazaude, sinatu mesedez behean eskatzen dizuguna.

Argibide gehiago behar badituzu behean agertzen den e-postan eta telefonoetan aurkituko nauzu erantzuteko prest.

Eskerrik asko zure arretagatik

Leioa, 2017-02-08

Sin.: Esther Zarandona de Juan-ek
Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola
Leioako campusa, Sarriena z/g
Leioa- 48940
esther.zarandona@ehu.eus
Tf.: 946014600

* Ikerketak egiteko kode etikoak eskatzen duenaren arabera, hala nahi izanez gero, ondoko hau sinatzea eskatzen dizugu: eskoletako behaketak eta elkarrizketa zertarako diren ezagutzen duzula eta baimena ematen duzula datu hauek aipatu eginkizunerako eta baldintzetan erabiltzeko.

Sin.:
Data:

Haur Hezkuntzako Gradua
Gradu Amaierako Lana



Zuzendari Agurgarri hori:

Esther Zarandona de Juan naiz, UPV/EHUko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Sailaren irakaslea eta Maialen Atxutegi Aurtenetxeren Gradu Amaierako Lanaren tutorea. Ikasle honek Practicum-ean egiten ari den zenbait behaketa eta dokumentuen azterketa erabiltzeko baimena eskatzera natorkizu, aipatu lana egin ahal izateko, beti ere ikasgelako irakaslea ados egongo balitz. Helburu nagusia hau da: ikaslea hezkuntzari buruzko ikerketa kualitatiboaren prozesu batean murgiltzea, prozesu horren urrats guztiak ezagutzea eta ikerketa aurrera ematea. Haur Hezkuntzan mugak irakatsi eta ikasi prozesuaren gaineko ezagutzan sakontzea lortu nahi da, horixe baita hain zuzen Gradu Amaierako Lan honen aztergaia. Bide honetan elkarriketak ere egingo ditu bere lanean parte hartzeko prest dauden eskolako partaide batzuekin.

Hartuko diren datuak, ez dira beste ezertarako erabiliko, bakar bakarrik GrAL egiteko. Bestalde, partaide guztien identitatea -eskola, irakaslea eta ikasleak-, konfidentziala izango da eta zuk nahi izanez gero ikasleak saio bat prestatuko du lanaren emaitzen berri zuri emateko (edo eskolari nahi baduzue). Ados bazaude, sinatu mesedez behean eskatzen dizuguna.

Argibide gehiago behar badituzu behean agertzen den e-postan eta telefonoetan aurkituko nauzu erantzuteko prest.

Eskerrik asko zure arretagatik

Leioa, 2017-02-08

Sin.: Esther Zarandona de Juan-ek
Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola
Leioako campusa, Sarriena z/g
Leioa- 48940
esther.zarandona@ehu.eus
Tf.: 946014600

* Ikerketak egiteko kode etikoak eskatzen duenaren arabera, hala nahi izanez gero, ondoko hau sinatzea eskatzen dizugu: eskolako behaketak eta dokumentuen azterketa zertarako diren ezagutzen duzula eta baimena ematen duzula datu hauek aipatu eginkizunerako eta baldintzetan erabiltzeko.

Sin.:
Data: